

EUSKERAZALEAK

GAUR ETA BIAR

BAI EUSKERARI, txistu, danbolin, abarrots eta dirubatzek amaitu ziran.

Onik ezer irabazi ete dogu?

Euskerea len aiña motel, Real Academia MILOIKA diru.

* * *

Al dauanak al dau ta, argitaratuko dira milla liburu barri, apaletan ilgo dira geien batzuk, zarraren zarrez ori-gorri.

* * *

Batzuek, erronkatsu, esango dabena besteek apalik entzun bearko: zuok lau tantu besterik ez, guk «hamar hamarreko».

* * *

Batasunaren aldeko giroa izan zala Bergara'n?

Aurkakorik ez da inoz izan Bizkaia'n, ez Zuberoan, naizta bi aitzak eortzi gura dauskuezan illobi-zuloan.

Batua-Batzarrak egiten diranean, jakitun diran guztiak zergaitik ez, BOZA ta BOTOA (autarkia) galga batean?

* * *

Ur zurrunbilloaren norabidea ikusi al izateko, Real Euskaltzaindiak epea emon edo eskeindu ei eban «hamar» urterako.

Eta urak (erriak) egin oi dau bidea Euskaltzaindiaren boluan (errotan) garia eioteko.

Baiña berez egin ete dau bidea, ala ez ete da izan gero, aurrez atxurlariak atxurketan ibili diralako?

LANDAJUELA'tar A.'k

ZER DA

Eretia? Aldi, denpora egokia.

Kilikagarria? Pozgarria, atsegintsua.

Erakartzea? Tirakadea, dei beroa.

Kuntzea? Gizonezko ta andrazkoen izaera berezia, seksua.

Iradua? Arin egin-bearra, priesea.

Ezaria? Astiro, itziez, gauzea galtzea.

Aolkua? Ontzat daukagun bidea agertzea eta jarraitzeko eskatzea.

Autua? Alkar-izketea, barriketea.

Itsatsia? Lotua, josia, gaiñeratua.

Asazkaldia? Atsedean eta nasaitasun-aldia.

Beratzia? Biguna, barru-miñez betea.

Unkigarria? Barruan dar-dar dagiana.

Suntsitua? Azpiratua, ezestua.

Geznari? Barri-ekarle edo emoilie.

Kiratsa? Mingarria, garratz a, mingotsa.

Ozena? Gogotsua, zaratatsua.

Arragoa? Burdiñea urtutzeko sutea.

Amultsu? Maitetsu, biotz-bigun.